

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak hitzarmena sinatu du Tinko Euskara Elkartearekin euskarazko zinema ikasleen artean zabaltzeko

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako A, B eta D ereduetako 5.000 ikasleri zuzendutako ekimena da

Ostirala, 2018.eko martxoak 9

Roberto Perez
Hezkuntzako Zuzendari
Nagusiak eta Marian Galarraga
Tinko Euskara Elkarte
lehendakariak hitzarmena
sinatu dute euskarazko zinema
zabaltzeko Nafarroako
ikastetxeetan. Haur, Lehen eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzako A, B eta D
ereduetako 5.000 ikaslek baino
gehiagok, horrela, euskaraz
sortutako edo euskarara
itzulitako filmak ezagutuko



Roberto Perez, Hezkuntza zuzendaria eta Marian Galarraga, Tinko elkarte presidentea.

dituzte, ondoren gelan pedagogikoki lantzeko. Hitzarmenaren zenbatekoa 30.000 €koa da 2018. urterako.

Ikus-entzunezko sorkuntzak gero eta garrantzi handiagoa du gaur egungo gizartean, eta frogatuta dago kontsumoak haurtzaroan eta gaztaroan daukan eragina. Kultur kontsumoa irudizkoa eta soinuakoa da gero eta gehiago eta horregatik garrantzitsua da kontsumo praktika egokiak bultzatzea, gazteak giza balioekiko sentiberak izan daitezen, eta ikus-entzunezko ekoizpenaren ekarpenaz jabe daitezen.

Hezkuntza Departamentuarentzat oso garrantzitsua da euskaraz ikasten duten edo ikasten ari diren ikasleek hizkuntza horretan sortzen eta ekoizten dena ezagutzea. Euskarazko zinemaren aldeko zaletasuna eta zuzenean ikasgelarekin lotuta ez dagoen kultur ekoizpen baten kontsumoa bultzatu nahi da horrela.

Tinko Euskara Elkartea 1995etik ari da zinema eskaintza zabala egiten ikastetxeetan, *Euskara Zinema Aretoetara* egitasmoaren bidez. Elkarteak arrakasta handiko filmak aukeratzen ditu 3 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat; banaketa eskubideak erosten ditu; euskarara itzultzen ditu lanak eta zinema aretoetara eramaten ditu, propio egindako hitzarmenen bidez. Filmak aukeratzeko unean, gizatasunarekin lotutako irizpideek agintzen dute: elkartasuna, familia, animaliekiko eta

ingurugiroarekiko errespetua, eta eskola jazarpenarekiko arbuioa. Emanaldiaz gain, Tinko Euskara Elkartek fitxa pedagogikoak sortzen ditu, filmetan agertzen diren gaiak, ondoren, ikasgelan landu daitezzen.

Ostiral honetan bertan, Golem Zinematokietan, 10:15etan, Sanduzelai Ikastetxeko LHko 4., 5. Eta 6. Ikasturteko ikasleek *Tarzan* filma ikusi ahal izango dute.